

Adei Enparantza Agirre

E maila • 1 aipamena

Kaixo Adei Enparantza Agirre naiz eta 11urte ditut. Aurten 6. maila ikasten ari naiz Alkartasuna Lizeoa ikastetxean. Oso gustokoa dut kirola egitea eta lagunekin jolastea. Gure etxean ohitura da lehiaketa honetan parte hartzea, nire arrebek ere askotan egin izan dute. Ea gustokoak dituzuen nire bertsoak.



Doinua: Astoa ikusi nuen

KONFINATUA

Martxoan esan zuten
eskola isteko
COVID birusangandik
denok babesteko
Pentsatuz zelakoan
egun batzutako
kontua luzatu zen
hilabetetako

Harremana zegoen
ordenadorean
lagunekin jolastuz
orduak sarean
Hasieran gustora
pantaila aurrean
bukaerako berriz
zoratu beharrean